



JAKES LARRE

Bea Sallaberry

EUSKARA IRAKASLEA ♦

## Gohaindidura

GOHAINDIDURA –goragalea– sentitu nuen, lagun batek, solasen harira “homosexuala bainaiz”, bota zidanean.

Isildu nintzen, ez baitzen deus erratekorik. Irudikatu nuen gure herriko karta postaletako paisaia batean kokaturik eta zein izan zitekeen haren egunerokotasuna, beste hainbesterena bezala. Duela zenbait aste bozkatu denentzako ezkontzaren legetik landa bide baitugu egiteko, homosexualen kasutik haratago ere, edozein pseudo-desberdintasunen normalizazioaren bidean, gizarteak ezarri muga guziak bukatutzat eman artean.

Gizarte honek ez du deus gordetzen, isiltzen aldiz franko, eta artaldearen kodeen arabera bizi ez denaren egunak neke bilakarazi ditzake: zaila da herri zenbaitetako komunitate konformista baten aldean bizitzea. Dorpea. Beltza, homosexuala, ama bakarra, independentista, errefuxiatua, kanpotarra eta noizbait jarri eredu baten arabera bizi ez den orok sufritu beharko du: auzoak barrandan, irri gizen eta finezia mikorik gabeko solasak, zernahi bazterketa. Batzuetan etxekoek ere erruki gutxi ukanen dute: “Horrela ezin da, honela behar da, zer erranen du jendeak?”. Etxetik urrun, hirietako anonimatuaren babesean badirudi errazagoa dela; ikus eta sinets.

*Gizarte honek ez du deus gordetzen, isiltzen aldiz franko eta artaldearen kodigoen arabera bizi ez denaren egunak neke bilakarazi ditzake: zaila da herri zenbaitetako komunitate konformista baten aldean bizitzea*

Gure lurraldeak eta gizarteak leher egiten segitzen duten bitartean (horretaz kontziente izanik, paradoxikoa da) beste mendeetako hariak ehuntzen jarraitzen dugu: izaki eta jarrera uniformeak, koardotik ateratzen denaren gaitzespen kontsentsuala, estandar guziekin bat eta moldean junt-junta egotearen ilusioa. Nahi ala ez, ispilu erraldoian, gizarteak jadanik marraztu du zure itzala, perfektuki, arkatz beltzez, mugatzaile eta mingarri. Beste gisaz azaltzeko, kapa beltz handi bat bezalako da, beste gauza batzuk ez bezala transmisioan gutxitan huts egiten duena, integratzen, garatzen, eta sinpleki, bizitzen uzten ez duena, bere baitan oratzen gaituena, galipot tona bateko geruza baino astunago.

Luzaz segituko du batailak, herri honi bidea egiten uzten ez

dion kapa horretaz libratu artean, gure haurrek ez ditzaten bizi behar ukan.

Azkenean, kasik errazki uros bizitzea lortzen du *Amaia Ezpeldoik!* Ez? Kasik libre ematen du. Bederen, bere baitakoa izatea lortu duela dirudi, norbaitek ontsa tinkatu korapiloen askatzen denbora pasa ordeztu betiko *Martin Larralderen* kopletan gatibaturik gaudekeenek ez bezala. ■



DANI BLANCO



Ixiar Rozas



IDAZLEA

## Jakin-mina (I)

PEDAGOGIAREN etimologian bi azalpen ditugu; greziarra “umea zuzentzea, bideratzea” edota latineko *pedaticum* hitza, “bidesaria edo ordainlekua”. Zeinek ordaintzen du, bidesaria zeharkatzen duenak edo atzean geratzen denak? Zein da gastua? Zeinek galtzen du? Zein da galera horren benetako dimentsioa? Besteen galera ulertzen ikastea eta ulermen horren kostua kalkulatzeko, irudimenaren pedagogi moduko bat izan daiteke. Irudimenak ere besteen mina erakusten digu.

Eskolaratzeak bideratzea dakar egun, gure gizarteak sortutako bide zuzenetan jartzen ditu umeak. Des-eskolatu kontzeptua

ez da eskolatzearen kontrakoa. Ivan Illich-ek honela azaltzen du: hezkuntza ez uztea eskolaren esku soilik, bizitza osora hedatzea. Bizitzaren esparru guztiak prisma honetatik begiratzen baditugu, konplexuagoak egiten zaizkigu haren tolesdurak, gure umeak ez ditugulako jada pedagogiaren esku norabide bakarrekoan uzten. Horrek ere mina ekar dezake, bizitzaren eta jakintzaren muinean ere mina dagoelako. Eta ezin dira mina eta galera ulertu, hauek ekar dezaketenez gozamena begiratu gabe. Irudimenez, jakina. ■

